egin domingo, 6 de diciembre de 1981

la utopia de la racionalidad (III)

# euskadi: platonen errepublikaren bila

Ni Rousseau ni Marx, ni la racionalidad universal ni la racionalidad de clase. El verdadero maestro del neorracionalismo vasco parece ser mucho más antiguo: es Platón, con su racionalidad de élite. Y la "República" de Platón constituye el manual de los constructores de la "Nueva Democracia" vasca.

Muy entusiasmados de la parábola de la cueva de Platón, nuestros platónicos van adjudicando la luz de la razón y el instrumento del concocimiento auténtico de la historia, realidad social, interés popular y futuro político de nuestro País a una élite iluminada, que, por lo mismo, tiene la clave de la construcción y ordenación y dirección de la "Nueva Democracia".

Sin embargo, Platón, "el utópico republicano", admiraba el real régimen despótico de Esparta, como modelo de su República; nuestros platónicos de hoy, "demócratas realistas" (!¿) no nos conducirán a la "racional" dictadura de élite, manteniendo en la cueva a la gran "masa cavernícola e irracional" del Pueblo Vasco?. Esa es la sospecha. Ese es el miedo.

...Baina hemen benetan Platonen Errepublika ezarri nahi da: hots, eliteen diktadura!

K.a. V-IV. mendeetan bizi izan zen Platon. Besteren artean "Errepublika" izeneko liburu famatu bat idatzi zuen, non bere teoria politikoa ematen bait zuen. Geroko mendeetan zehar gogoz aztertu dute filosofoek Platonen liburua; eta hainbat politikarik hortik atera uste izan du gobernatzeko argia.

Ba, hainbat mende pasa ondoren, Euskal Herri hau "jaso", "eraiki" edo "aurrera eraman" nahi duten politikari zentzudun guztiek filosofo harengana jo nahi dute nonbait, arrazoimenaren Errepublikaren bila. Ba dirudi, Macchiavello-ren "Il Principe" edo Marx-en "Das Kapital" haina Platonen "Errepublika" irakurtzen dutela gaurko gure gidari politikoek. Agian batzuk euskaraz, euskaratua bait dago aspalditxoko urteotan! Baina gaztelaniaratua lehenagotik dago...

### Haitzuloaren alegia

Ba du Platonek alegi eder bat Errepublika liburuan, gizadiaren mundu honetako egoera azaldu nahi duena. Oso ezaguna da, hain zuzen, "Haitzuloaren alegia".

Platonen ustez, gizakiak haitzuloan sarturik daude, ilunpetan eta kateaturik: lepoz eta zangoz kateaturik, atzera bueltatu eta begiratu ezinik. Aurrekaldean, berriz, orma bat besterik ez dute. Haintzuloaren kanpokaldetik sartzen zaizkie argi-errainu batzu, eta horiekin batera kanpoan dabiltzan izakien itzalak haitzuloko orman projektatzen dira, eta horiekin batera ormara begira dauden gizakien berdien itzalak ere bai. Itzal-irudi horiek besterik ez dituzte ikusten haitzuloan ormara begira dauden gizagajoek. Eta itzal horietxek hartzen dituzte benetako gauzatzat gainera.

Baina ba dira batzuk, haitzuloko kateetatik askatu eta kanpora irtetzea lortzen dutenak. Horiek bakarrik, kanpoko suaren argitan, ikusi ahal dituzte gauzak; berauen benetakotasunean eta ez itzaletan edo iruditan. Hauek dira filosofoak edo jakintsuak.

Mundua ezagutzeko bi bide daude, Platonen ustez: Adimena eta arrazoimena. Adimena zentzumenei loturik eta horien menpe dago: hauek, berriz, itzal-irudiak besterik ez dizkiote adimenari eskaintzen. Jende arrunta horrelako ezagutzaren munduan bizi da: hitz batez, haitzuloan bizi da. Arrazoimena, berriz, ideia traszendentalen jabe da, eta horietan ezagutzen ditu munduaren benetako egia eta izatea. Jende arruntak, haitzulo barruko ormako itzaletan gauzak sumatu eta ikusiabartu bakarrik egiten dituen bitartean, —bere eritzia eman ahal izateko moduan—, filosofoek eta jakintsuek betiko ideia iraunkor eta absolutuetan ikusi egiten dituzte gauzak —beren ezagutza emateko moduan—.

Ez dago urruti joan beharrik, Platonek adimenezko eta arrazoimenezko ezagutzaren artean egiten duen bereizkuntza horretan, gaur egiten den "arrazionalen" eta "irrazionalen" arteko banaketa ikusteko. Izan ere, gaurko "irrazionalak" beren "zentzumenen" menpe daude nonbait: beren grina, emozionalismo, utopismo, irrealismo eta bestelako -ismo txar guztien kateek lotuta: burugabe halakoak! Arrazional burutsuak, ordea, haitzuloko ilunpetatik ihesegiteko gauza dira, bihozkeria, erraikeria, buruberokeria eta odolberokeria guztiak gaindituz: honela, gure mundu hau buru hotz eta argiz ikusi eta arrazoin zuzenez juzgatu ahal dute. Hauek bai argitsuak!

### Jakintsuen errepublika utopikoa

Platonen errepublika utopikoaren oinarria da haitzuloaren alegia. Errepublika horren bila, hiru taldetan banatzen ditu Platonek gizakiak: Jende arrunta, soldaduak eta zaindariak. Gizartearen parterik handien-handiena lehen "klaseak" osatzen dute; gutxienak zaindariak dira. Jende arruntari gaurregun "herria", "basea", "masa" deitzen zaio. Zaindariei, berriz, gaurregun gidariak deitzen zaie: Herriaren gidariak. Platonen ustez, filosofoek —jakintsuak— izan behar dute Errepublika utopikoko zaindari-gidariak: horien eskuetan utzi behar da gobernamendua, horiek bakarrik "ikusten" bait dute errealitatea arrazoimenaren argi diztiratsuarekin.

Hona hemen Platonek Errepublika-ren bosgarren liburuari ematen dion hasiera: "Filosofoak errege ez diren bitartean edo mundu honetako erregeek eta printzeek filosofi izpiritu eta ahalmena ez dituzten bitartean eta politikaren handia jakinduriarekin berdintzen ez den bitartean; eta horietako bata eta bestea ukatu nahian dabiltzan jende arruntak baztertzen ez diren bitartean, ezingo dituzte Estatuek beren gaitzak aldendu ez eta gizadiak ere, uste dudanez. Baldintza horiek betetzen direnean bakarrik bizi eta gozatu ahal izango du Estatuak egun argiko argitasuna".

Hementxe gaude. Oso ondo ikasia dute Platonen irakatsia, OTANi buruzko erreferendua herriari ukatu nahi dioten gure politikari jakintsuek, arazo konplexuegia delako hori; haitzuloan kateaturik daudenek ezin horren ezagutza egokirik izan. Berdin da, Lemoizi buruz, gidari jakintsuek aurretik hartutako eta "argitutako" erabakiari buruz oinarriko jende arruntei galdetzen zaienean, "baiezkoa" eman dezan; bestelakorik esatera ez bait da iristen horien adimen kateatua!

Baina ez dago muturreko kasuetara joan beharrik. Gure alderdi politiko gehienak —denak?— ez ahal daude, bada, Platonen irakatsian oinarriturik? Ez ahal dira alderdi politikoak gidari politikoak sortzeko eta bultzatzeko makinak? Ez ahal da gidari horien pribilejioa filosofo eta jakintsu izatea, beren arrazoimenaren argitan herriaren *adimen pobre eta iluna argitzeko*? Irrazionaltasunaren kateetatik askaturik, zaindari-gidari bihurtzeko gauza izan den "filosofo-jakintsuak" bere betebehartzat hartzen du —hala irakasten dio Platonek—, berriro ere haitzulora itzulirik, kateaturik irauten dutenei benetako egiaren eta arrazionaltasunaren bidea erakustea.

Horrela funtzionatu nahi dute gure herrian Platonen Errepublikaren utopian sinetsi dutenak. Honelaxe ulertzen dute demokrazia: Jakintsu filosofo eta askatuen argia herri kateatuaren —eta askatu ezin denaren— aldeko sistema. Platon bera baino lehenagokoa da, ordea, asmakizuna: K. a. VI mendeko Txinako "errege jakintsuek" horrelakoxe erregimena nahi zuten bere erreinuetarako; eta Platonen ondoren, hainbestek ezarri nahi izan du horrelako "errepublika aristokratikoa". Garai batetan, "despotismo ilustratua" izena ematen zitzaion horri.

Dena da gauza bera: Elite burutsu eta argitsuaren agintea herri —base, "masa"— burugabe eta argigabearen "alde". Goitik dator arrazionaltasuna, behetik irrazionaltasuna. Horregatik ez du irtenbiderik batzarreak, gidarien argiaren argitasunak hartzeko eta haien aldeko botoa emateko ez baldin bada; demokrazia asanblearioa herri burugabearen burugabekeriarik handiena da, herriari —baseari, "masari"— aitortzen bait dio arrazionaltasuna bide izatea.

### Arrazoimenaren eliteen diktadura

Platonek, zuzentasunaren izenean, bere errepublika utopikoa marraztu zuen; gure politikari-filosofo berriek, arrazionaltasunaren izenean, diktadura "topikoa" —hemen eta gaur— gauzatu eta ezarri nahi digute. Ez da edozein diktadura; arrazoimenaren elite burutsuen diktadura da.

B. Russel-ek *Historia de la Filosofía Occidental* idatzia du, Gaztelaniaz lau tomotan argitaratua. Lehen tomoan (127. orrialdean), Platoni buruz ari delarik, honela dio: "Platón poseyó el arte de disfrazar las sugerencias antiliberales de tal forma, que engañó a las épocas futuras, que han admirado su República sin darse cuenta de que no comprendían sus propuestas (...). Deseo entenderle, pero tratarle con tan poca reverencia como *si fuera un inglés o un americano* partidario del totalitarismo". Gaurko gure elite politikoek, Errepublika zuzen ulertzen dutela uste dut. Eta iruzurrak aurrera jarraitzen du...

Platon, atenatarra izanik, ez zen Atenako demokraziaren aldekoa: Esparta-ko diktadura miresten zuen, han ikusten bait zuen bere Errepublika utopikoaren eredua eta nolabaiteko gauzapena.

Gaurko gure platonistek ere errepublika -berdin da erreinu liberal eta demokratikoa predikatzen digute. Baina arrazoimenaren eliteen demokrazia demagogia bihurtzen da berehala. Bi hitzek herriari "demos" ari-egiten diote deia; baina aurrenak herriaren aginte aktiboa aitortzen eta onartzen duen bitartean, *bigarrenak herriaren erabilera pasiboa* amesten du, hori eliteen eskuetarik gidatu eta eraman nahi du. Platonek ez dio jende arruntari haitzuloko kateetatik askatzeko itxaropenik ematen: gehienik ere, handik iheseginak diren eta kanpoko "goi-argia" bereganatua duten filosofo *jakintsuen* gidaritza eskaintzen die. Gutxi batzu besterik ezin dira izan, ordea, filosofo eta gidari argitu horiek; horregatik, demagogiatik berehala igarotzen gara oligarkiara.

Arrazoimenaren errepublikak diktadura oligarkikoaren bidea hartzen du berehala, nahiz eta demokrazia liberalaren predikuetan disfrazatu. Karl Popper-en eta berorren eskolakoen aldetik ondo abisatuak gaude: diktadura handienak arrazionaltasunaren aldeko eta irrazionaltasunaren aurkako gurutzadaten sortuak dira.

Kontuz, beraz, gure gaurko platonista burutsu eta "demokratikoekin", beren Euskadi arrazionala predikatzen digutenean!

**JAUSORO**

## colaboraciones

## semaforo gorria



Badira gaiak eta gauza bitxiak, baina Durangoko Azokak semaforo bat merezi duelakoan gaude. Semaforo pentsalari, ibiltari, asmalari eta abarlari guztiak han ibiliko dira atzera eta aurrera. Norbaitek esan zuen liburua dela lagunik onena. Hori nahi denen bazterrean uzten delako izango da. Nahi denean hartu eta nahi denean utzi. Eta haserretu gabe. Lagun ona izateko ez da baldintza txarra.

Euskaldunontzat badirudi liburua ez dela lagunik onena. Euskaraz behintzat. Hor gabiltza liburu bat egin eta nork irakurriko digun ez dakigula. Bada beste duda bat ere, alegia, irakurtzeko modukoak egin behar direla. Irakurtzea merezi dutenak. Euskaraz egotea ez da irakurleak eskatzeko nahikoa. Semaforo gorria segur dago Urrutikoetxearen deklarapen famatu horiek, adibidez, euskara hutsez baleude, makina batek irakurriko zituela. Edo ahalegin-duko zirela. Ez zuten erdaraz hainbat hauts astinduko. Baina Mogelen "Peru Abarka" baino irakurriago izango zirela ere bai.

– Kontuan eduki zoro zertifikatu bat badudala. Mahi dudana esan dezaket, zoro zertifikatua baitaukat.

Honelako gauzak euskaraz ere gustora irakur litezke. Ez uste semaforo gorria azpi jaten ari denik. Ez luke euskal literaturarik desprestigiatu nahi. Bestela ere badu nahiko gaitzik, inor azpiak jatera etorri gabe. Zorigaitzez asto zaharrari gaitz guztiak biltzen zaizkio eta hizkuntza ahulari ere bai. Bere buztana hozkatzen ari den arraina bezala. Hizkuntza indartsurik ez bada, literatura indartsurik ezin izan. *Literatura indartsurik ezin izan*, mami indartsurik ez bada. Nola mami indartsurik izan, alor zapaldua baldin bada? Eta horrela.

Hala ere, honelako azoka bat *ikustean*, zerbait bagarela pentsatzeko adorea ematen du. Badela alorra eta badela mamia. Gure kulturaren azoka denez gero, semaforo guztiak gonbidatuak gaude. Sakelak zimel badaude, elkar ikusteko behintzat.

Xabier AMURIZA

## cartas

# denuncia desde la cárcel de carabanchel

Nos dirigimos a la opinión pública y especialmente al pueblo de Billabona *con el fin de aclarar malos entendidos.*

Nosotros: Angel Etxabe, Karlos Agirrebengoa, José Luis Lertxundi y José Ramón Laskurain presos en la cárcel de Carabanchel, queremos manifestar y ratificarnos en nuestra sola y absoluta militancia en Euskadiko Ezkerra, queremos dejar claro también que con la organización ETA p-m sólo nos une una similtud en cuanto a objetivos políticos que nuestro partido y esta organización persiguen, también la amistad personal con personas encuadradas en esta organización hoy en el exilio.

No es la primera vez que nuestro partido sufre las consecuencias de la represión, pero es hoy precisamente cuando muchos de nosotros hemos apostado por las *vías democráticas* de solución a los problemas de nuestro pueblo; cuando estamos denunciando el estado policial a que está sometido Euskadi y los recortes que el Estado central por medio de la LOAPA pretende imponernos en contra del Estatuto de Autonomia; cuando claramente hemos propiciado el alto el fuego y la salida política negociada y cuando un largo etcétera de proposiciones democrática venimos haciéndolo se nos escarcela.

No nos resulta raro que ante el insistente *rumor de involución política* en favor de un golpe y la crisis política del partido en el poder, se quiere contentar al *aparato más reaccionario* del Estado como es el Ejército, con castigos masivos y llenadas de cárceles con *revolucionarios democráticos*. Tampoco nos resulta raro que el poder central quiera frenar los avances de nuestro pueblo con este tipo de actuaciones; pero nos resulta más que sospechoso que partidos que se definen cláramente de oposición silencien estos atropellos con la más absoluta impunidad.

Nuestra detención y encarcelamiento, lo mismo que otras muchas que sufren los militantes de nuestro partido, sólo responden a un intento de hacer fracasar el avance de la izquierda con métodos claramente fascistas. En estos momentos en que en Euskadi se está gestando la posibilidad de una izquierda fuerte, consecuente y eficaz con la unificación de EIA-EPK, este tipo de actuaciones sólo responden a un intento de fracasar toda posibilidad de avance de la izquiera. Las detenciones masivas, *torturas, encarcelamientos... contra militantes de izquierda*, no hacen más que confirmarnos en nuestra voluntad de luchar en favor de la depuración de los elementos fascistas del aparato del Estado, los mismos que hoy siguen ocupando cargos como en el franquismo y que tantos testimonios dejaron grabados en los cuerpos de infinidad de revolucionarios vascos.

Ello, unido a nuestra firme voluntad *democrática de luchar y trabajar por* una salida negociada a los problemas de nuestro pueblo ha sido la causa de *nuestro encarcelamiento.*

### Nuestra denuncia al "MULA"

Tras nuestra detención, el Mula (*Mando Unificado para la Lucha Antiterrorista*) con los medios con que cuenta a su alcance (fotografías, informaciones en prensa, etc.) trató de hacer creer a la opinión pública que había dado un gran golpe a la organización ETA p-m, para ello no dudó en ningún momento en silenciar nuestra militancia en EE y se nos acusaba a todos por igual queriendo hacer creer que nosotros formábamos parte de una infraestructura organizada ante una inminente vuelta a las armas de la organización político militar.

Denunciamos también el intento constante de hacer creer que entre EE y ETApm hay algo más que coincidencias políticas, porque no nos cansaremos de repetir que son dos organizaciones totalmente diferenciadas, tanto a nivel de estructura como de práctica política.

Por último hacemos un llamamiento a todo el pueblo para que no se deje atropellar por estos actos, que lo que hoy nos ha ocurrido a nosotros, mañana puede ocurrirle a cualquiera que tenga unos objetivos nacionales y de clase.

Desde estas líneas agradecemos la *lucha y los esfuerzos para nuestra* libertad tanto del Ayuntamiento como del pueblo en general.

Un saludo desde la cárcel de Carabanchel:
Angel ETXABE, Karlos AGIRREBENGOA, José Luis LERTXUNDI, José Ramón LASKURAIN.